

8.Funtsezko Jarduerak

Enpresekin kontratu luzeak behar ditugu denbora guztian harriak izateko eta hauek saldu ahal izateko. Horrez gain, ikerketa konstantea behar dugu gure enpresaren teknologia zaharkitua gera ez dadin.

Enpresa bakoitzera astero bidaltzen ditugun ikertzaileak, prozesua gainbegiratzeaz gain, enpresa burua edo zuzendariarekin hitz egingo dute kekek edo hobetzeko proposamenak apuntatuz. Honela, astero, txosten bat beteko dute eta gure garapen taldeari bidaliko diote. Garapen taldeak, hobetzeko proposamenak aztertu eta hauek betetzeko proiektuak proposatuko dituzte. Horrez gain, txostena, segurtasun taldeari bidaliko zaio eta hauek, laborategi bakoitzeko segurtasuna ondo dagoela berrikusiko dute.

Laborategi txikiez gain, laborategi nagusia izango dugu eta honetan, gure prozesu kimikoen efizientzia eta kalitatea hobetzen saiatuko gara gure elitezko kimikari eta fisikarien laguntzaz. Honen bidez, gure teknologia ez da zaharkitua geratuko.

Egingo dugun patente baten bidez, gure teknologia eta prozesua guretzat bakarrik izango ditugu lehia ekidituz.



